



V SALTO SYSTEMS ERRELEBO ETA BINAKAKO LASTERKETA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldeak, Irungo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta Salto Systems-en babesarekin, **V Salto Systems Errelebo / Binakako Lasterketa** antolatuko du 2021eko azaroaren 21ean, igande goizean. Ekitaldia herritar guztiei zuzendutako mugikortasun eta jarduera fisikoari buruzko jardunaldian txertatuta egongo da. Gainera, Osakidetzaen, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Kirol Egokituaren Federazioaren babesa izango dugu. Igande goiz osoko saioa antolatuko da Irun erdigunean, non herritar gehienek hartu ahalko dute parte. Goiz-goizean adinekoentzat ibilaldi osasuntsu batekin abiatuko da ekitaldia, segidan 4x1 miliako eta binakako 3 miliako lasterketak izango dira. Desgaitasuna fisikoa dutenentzako eta adimen urrituentzako lasterketak izango dira jarrian. Bukatzeko familientzako milia solidarioa antolatuko da. Era berean goiz guztian zehar atletismoko Igande Sasoi bat txikientzat burutuko da.

Lehiaketa-lasterketei dagokionez, bi izango dira goizeko programan: 4x1 miliako errelebo-lasterketa eta 3 miliako binakako lasterketa (2.en artikulua eta 3.en artikulua). Lasterketa bietan generoaren arabera sailkapen bereziak egingo dira, gizonezkoen, emakumezkoen eta mistoen kategoriak bereiziz. Lasterketak milia bat (1609,344 m.) neurtzen duen zirkuitu betean lehiatuko dira. ([Ikusi plana](#)).

COVID-19aren AURKAKO PROTOKOLOA, musukoaren erabilerari, higienaren eta distantziari buruzko neurriei dagokionez, osasun-egoeraren bilakaerari eta agintari eskudunek une bakoitzean ezarritako jarraibideetara egokituko dira.

2. ARTIKULUA: ERRELEBOETAKO 4X1 MILIAKO LASTERKETA

Taldeek 4 kide izan beharko dituzte eta bakoitzak milia bat osatu beharko du (1609,344 m.). Lehenengo korrikalaria irteera-arkutik aterako da, lekuko bat eskuan duela. Lekuko horrek taldearen denbora partzialak eta denbora osoa jasoko dituen txipa izango du. Bigarren ordezkoa lehenengoaren zain egongo da antolakuntzak mugatutako lekukoaren aldaketa-eremuan (helmuga baino 20 metro lehenago). Lekukoa eremu horretan entregatuko da, bigarren, hirugarren eta laugarren ordezkoei, hurrenez hurren.

Hiru sailkapen egongo dira: gizonezkoena, emakumezkoena eta mistoa. Nahikoa izango da taldean genero desberdineko bi kide egotea talde misto bat osatzeko. Lehen korrikalariaren irteera-seinaletik azken errelebo-hartzailea helmugara iritsi arte igarotako denbora osoaren arabera egingo da sailkapena.

3. ARTIKULUA: BINAKAKO 3 MILIAKO LASTERKETA

Taldeek 2 kide izan beharko dituzte, eta biek elkarrekin osatuko dituzte 3 miliak (4828,032 m.). Bikoteek elkarrekin irten, korrika egin eta helmugaratu beharko dute. Bestela, deskalifikatuak izango dira.

Hiru sailkapen egingo dira: gizonezkoena, emakumezkoena eta mistoa. Genero desberdineko bi partaideekin osatutako bikoteak mistotzat joko dira.

4. ARTIKULUA: PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa hauek nahi duenak parte hartzeko zabalik daude, kategoria, genero edo nazionalitate bereizketarik gabe, atleta federatua izan ala ez.

Korrikalari bakoitzak lasterketan bere ardurapean eta proba mota honi aurre egiteko behar adinako egoera fisikoa egiaztatuz parte hartuko du.

5. ARTIKULUA: EKITALDIAREN EGITARAU OSOA

- 10:00 Tippi-tappa ibilaldi osasungarria
- **10h45 Erreleboetako 4x1 milia lasterketa**
- 11:30 Handbike eta gurpildun aukietarako milia bateko lasterketa
- 11h45 Adimen-urrituentzako milia erdiko lasterketa
- **12:00 3 miliakoa binakako lasterketa**
- 12h45 Familientzako milia solidarioa
- Haurrentzako atletismoko Igande Sasoi jaurnaldia goiz osoan zehar

* Lasterketa hasi baino 10 minutu lehenago, parte-hartzaileak dei-kameraren gunera inguratuko dira ([planoan adierazita](#)). Handik, antolatzaileek irteera gunera sartzeko aukera emango diete parte-hartzaileei.

6. ARTIKULUA: IZEN-EMATEA

Izena emateko epea urriaren 18an irekiko da www.kirolprobak.com web gunean eta azaroaren 20an, larunbatean, 20h00etan, itxiko da.

Erreleboetako 4x1 miliako lasterketan izena emateko garaian, taldeko 4 kideek eman beharko dute izena, errelebo bakoitzaren ordena adieraziz. Ordena 1, 2, 3 eta 4 zenbakiz adieraziko da. 3 miliako binakako lasterketarako bi kideek aldi berean egin beharko dute izen ematea.

Edozein aldaketa, helbide honetara posta elektronikoko bat bidalita jakinaraziko da: batatletismo@gmail.com

Inskripzioen balioa:

- | | |
|---|-------------------------------|
| - 7 € lasterketari bakoitzak – 28 € talde bakoitzak | 4x1 miliako erreleboak |
| - 9 € lasterketari bakoitzak – 18 € bikote bakoitzak | 3 miliako bikote lasterketa |

Eskaintza berezia: 3 miliako binakako lasterketan izen emandakoak, 4x1 miliako lasterketan dohain parte hartu ahal izango dute batatletismo@gmail.com helbidera posta elektronikora mezu bat bidaliz eta 2 bikoteen partaideak eta erreleboen ordena adieraziz.

Izen-ematearekin batera korrikalariak honako hau jasoko du:

- 4 dorsal erreleboetako lasterketan parte hartzeko / 2 dorsal binakako lasterketan parte hartzeko
- 4 kamiseta erreleboetako lasterketako talde bakoitzeko / 2 kamiseta binakako lasterketako bikote bakoitzeko
- 4 lasterketarentzako aseguruia erreleboetako talde bakoitzeko / 2 lasterkarientzako aseguruia binako lasterketako bikote bakoitzeko
- Lekuko-txip bat talde bakoitzeko / bikote bakoitzeko
- Jan-edanak helmugan
- Kontsigna-zerbitzua
- Dutxa eta aldagela zerbitzua

7. ARTIKULUA: DORTSALAK ETA LEKUKO-TXIPA JASOTZEKO MODUA

Dortsalak eta Lekuko-Txipa irteera gunean bertan jaso ahal izango dira (Zabaltza Plazako Kioskoan).

AZAROAREN 21EAN, IGANDEAN, 8:45-etatik aurrera.

Dortsala eta txipa jasotzeko, NANA aurkeztea eta indarrean dauden neurri sanitarioak errespetatu beharko dira derrigorrez.

8. ARTIKULUA: DESKALIFIKATUA IZATEKO ARRAZOIAK

Bai irteeran eta helmugan denbora jasotzeko oinazpikoak izango dira. lasterkari guztiek bi puntu hauetatik nahitaez pasa beharko dute. Lasterkariak honako kasuetan automatikoki deskalifikatuak izango dira:

- Ibilbide osoa burutzen ez badute.
- Dortsaleko publizitatean aldaketak egiten badituzte edo hura ezkutatzen badute.
- Edizio honetako dortsala jantzita eramaten ez badute.
- Dorsalik edo lekuko-txipik gabe helmugaratzen badira.

- Epaileen edo Antolatzaileen jarraibideei kasurik egiten ez badiete.
- 3 milien binakako lasterketan bikoteko partaideak batera korrika egiten ez badute.
- Gogorazten da, erabat debekatuta dagoela zirkuitu barruan antolatzaileenak ez diren ibilgailu motordunekin edo bizikletekin sartzea.

9. ARTIKULUA: PARTE-HARTZAILEEN ASEGURUA

Antolakuntzak, indarrean dagoen legeriaren arabera, erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat izango du. Era berean, ofizialki inskribatutako parte-hartzaile guztiak istripu-aseguruaren poliza batez estalita egongo dira. Poliza horrek proba garatzearen ondorioz gertatzen diren istripuak estaliko ditu, eta inoiz ez ezkutuko pairamen edo tara baten, zuhurtziagabekeriaren, zabarkeriaren, legeak eta erregelamenduaren artikulua ez betetzearen ondorio gisa gertatutakoak. Lasterketa egiten den lekura eta bertatik egindako joan-etorrietan gertatzen direnak ere ez dira estalita egongo.

10. ARTIKULUA: SOROSPEN MEDIKOA

Sorospen medikoa egongo da ibilbide osoan zehar. Helmugan ere sorospen medikoa egongo da.

Antolakuntzak, proba baino lehen, mediku azterketa bat egitea gomendatzen die lasterkariei; era berean, parte-hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du kirola egiteak dakarren arriskua.

11. ARTIKULUA: SARIAK

1go gizonezkoen taldearentzako (4x1 milia)	Garaikurra + Oparia
1go emakumeen taldearentzako (4x1 milia)	Garaikurra + Oparia
1go talde mistoarentzako (4x1 milia)	Garaikurra + Oparia
1go gizonezkoen bikotearentzako (3 milia)	Garaikurra + Oparia
2en gizonezkoen bikotearentzako (3 milia)	Garaikurra + Oparia
3en gizonezkoen bikotearentzako (3 milia)	Garaikurra + Oparia
1go emakumeen bikotearentzako (3 milia)	Garaikurra + Oparia
2en emakumeen bikotearentzako (3 milia)	Garaikurra + Oparia
3en emakumeen bikotearentzako (3 milia)	Garaikurra + Oparia
1go bikote mistoarentzako (3 milia)	Garaikurra + Oparia
2en bikote mistoarentzako (3 milia)	Garaikurra + Oparia
3en bikote mistoarentzako (3 milia)	Garaikurra + Oparia
1go sailkatuarentzako gizonezkoen Handbike-tan (milia bat)	Garaikurra + Oparia
1go sailkatuarentzako emakumezkoen Handbike-tan (milia bat)	Garaikurra + Oparia
1go sailkatuarentzako gizonezkoen gurrpil-aulkietan (milia bat)	Garaikurra + Oparia
1go sailkatuarentzako emakumezkoen gurrpil-aulkietan (milia bat)	Garaikurra + Oparia

12. ARTIKULUA: DUTXATZEKO, ARROPA JASOTZEKO ETA APARKATZEKO ZERBITZUAK

Dutxak eta aldagelak irteera eta helmuga gunearen inguruan aurkitzen den Artaleku kiroldegikoak izango dira.

Arropa jasotzeko eta kontsignatzeko zerbitzua egongo da irteeratik 50 metrora, Zabaltza Enparantzan. ([Planoa ikusi](#)).

Autoz bertaraten direnei parking hauetakoren bat erabiltzea gomendatzen diegu: Irungo La Salle (doakoa), San Juan Plaza, Ficoba (doakoa) edo Colón Ibilbidea.

13. ARTIKULUA: IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUEN LAGATZEA

Parte hartzaile guztiak lasterketan izena ematen duten momentutik aurrera araudi hau onartzen dute, eta Bidasoa Atletiko Taldeari baimena ematen diote, soil-soilik kirol, promozio edo merkataritza xedearekin, berak edo bitarteko beste entitateek partaideen datu pertsonalen nahiz proba barreneko euren irudiaren erabilera informatikoa egiteko (argazki, bideo eta abarren bidez).

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoak ezartzen duenaren arabera, parte-hartzaileak eskubidea du fitxategi horiek eskuratzeko, betiere bertako edukia partzialki edo guztiz zuzentzeko edo baliogabetzeko xedez. Eskubide hori gauzatzeko, idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldearen egoitza sozialean. (Ramon Iribarren kalea, 4 – behe solairuko atzealdea, 20304 Irun)

Aurreikusita ez dagoen ororako World Athletic-eko araudia kontutan hartuko da.

14. ARTIKULUA: INFORMAZIO GRAFIKOA

Esteka honetan ibilbideari eta erantsitako guneei buruzko eguneratutako informazio zehatza eskuragarri dago:

<https://www.google.com/maps/d/edit?mid=1bgOUeLfcGP7THZFPFJEnuXD1vcabUgg0&usp=sharing>